

ilea moztuz, gizon-emakumeen \*sagarapenaren adierazgarri eta sinbolotzat. \*Monako budistek erabat soiltzen dute; tontsura egiten dute aszeta hinduista askok ere. Antzinako erlijioetan aztekek eta egiptiarrek ere ezagutzen zuten horrelako ohitura. Eliza Katolikoan, orain dela urte batzuk arte, \*kleriko guztiek egin behar zuten tontsura; gaur oraindik batzuk eramaten dute. Ile-mozkera koroaren itxurako zenez, \*koroa, besterik gabe, esaten da elizgizonen tontsura.

2. Eliza Katolikoan \*klerikotza hartzeko erritua ere bazen tontsura. 1972az gero aldatuta dago erritua, eta ez dute tontsurarik edo ile-mozterik egiten.

Ik. Ordenazioa.

### Tora(h)

Judaismoaren kanonaren lehen partea: hau da, \*Pentateukoa, edo Moise-ri egotzen dizkioten bost libururuak. "Legea" ere deitzen dute; "Profetak" izeneko sailarekin batera Itun Zaharraren muina osotzen du.

Bost dira Torah-ko libururuak: Genesia edo Hasiera, Exodoa edo Irteera, Lebitarrena, Zenbakiak, Deuteronomioa.

Gaur egun \*sinagogetan, lekurik onenean gordetzen dute, eta \*zapatutan irakurtzen.

Ik. Biblia; Itun Zaharra.

### Totemismoa

Ipar Amerikako algonkin hizkuntzako totem hitzetik dator. "Ahaidetasuna eta izpiritu babeslea" adierazten ditu horrek. Totemismoak, beraz, zera esan gura du: gizabana-koaren eta gizatalderen baten, eta animalia espezie jakin baten edota beste izaki naturalen baten artean ahaidetasun magiko-mistikoren bat eta zorikidetasunen bat dagoela uste duen sinestea. Horregatik, gizarte edo gizatalde jakin baten ongizatea animalia horretatik dagoela sinesten dute; eta ondorioz, \*gurtza eskaintzen diote.

Paleolito aroan sumatzen da gizakien eta animalien arteko nolabaiteko ahaidetasun-sena, eta gaurko herri primitiboen artean ere iraun du sena horrek berak.

Totemismoa duen klaneko guztiek izen bera daramate; totemak berak ere ematen dio izena sarritan gizataldeari: honen sorreran bertan jartzen dute animalia totemikoa. Inoiz hil ere egiten dute, eta jan, horrela totemaren indar magikoan esku hartzeko. \*Ezkontzatan ere badu eragina sarritan totemak: hau da, totem berberaren ahaidetasuna dutenek ez dute elkarrekin ezkontzerik, horrela exogamia totemikoa ezarri. Goi-indarraren --\*manaren-- irudikapena eta horren lekuko da totema. Indar horren sinboloa da totema.

Dena dela, funtzio soziala baino askozaz gehiago du totemak: funtsean izaki erlijiozkoa da, jainkotzat hartzen ez badute ere. Totemismoaren muina, traszendentea baina eskuperatu beharrekoa den indar misteriozkoan datza: horra hor erlijiozkoatasuna.

Baina mana edo indar misteriozkoaren sinestea ez da totemismoaren sustrai bakarra; horrek mila eratako ageripideak ditu. Izipirituetatik babesteko \*mozorroaren gisakoa jartzea edo dela, definitu izan dute totemismoa.

Dena dela, alde askotako erlijiozko fenomenoak da totemismoa; ez dago alde bakarretik argitzerik; zentzu sozial garrantzizkoa du.

Bide honetatik adierazten du Freud-ek totemismoa, bere Totema eta Tabua liburuan: Semeek hildako lehenburuko aitaren sublimazioa besterik ez omen da totema, hura hiltzeagatiko \*errudun-sentimendua gainditu nahian sortua. Era berean, \*intzesturen debekarekin eta exogamiaren legearekin loturik doa totemismoa; arau horren bidez, "aitak" galerazten omen ziena --klanaren barruan harreman sexualak edukitzea-- beren buruei debekatzen omen die semeek.

Ik. Edipo-komplexua; Aita; Animalien gurtza.

Paulo Agirrebaltzategi

### Tradizioa

Erlijiozko hizkeran zera da funtsean: Errebelazio edo erlijio bakoitzaren jatorrizko edukina (sinesbideari, gurtzari, elkarteko biezierari eta erakundeari, etab. dagozkiona) ondorengoenganatzea, eta bereziki ondorengoenganatzen den irakatsi, ohitura eta erakunde jatorren gorputza bera. Tradizioaren jatorrasuna transmititzaileen legitimitasunean eta itzal moralean oinarritzen da.

\*Kristautasunaren lehen aldiari apostoluen tradizioa eratu zena da, apostoluek berek eraikitako elkarteei utzia; gero Eliz tradizioa, Elizaren irakaslegoaren eta kristau-herriaren \*aitormenaren bidez, ondoko kristau-herriari gizaldi bakoitzean eskaintzen zitzaiona. Bi tradizioen arteko batasuna aitortzen du kristau-fedek.

Funtsean tradizioaren ondorengoenganatzeko prozesuaren esanahia gordetzen bada ere, horren edukinaren adiera nagusitu da: hau da, fede-gordailua bera, Elizak gizaldiz gizaldi transmitituz, azalduz eta argituz joan dena. Alde horretatik, Elizaren iraginaldiko jakinduria erlijiozko pilatua adierazten du tradizioa hitzak.

## Tradizionalismoa

Mendebaldeko zisma nagusian funtsezko eztabaidagai Eskrituraren eta Tradizioaren arteko harremanarekikoa izan zen. Protestantek Eskritura santua bakarrik aski zela esaten zuten bitartean, katolikoek biak baliorekin berdinekotzat jotzen zituen Trentoko Kontzilioan. Izatez, ez dago biak bereizterik, eta Idazteuna hitz bizia izango bada, fede-elkartearen bizi osoaren barruan ulertu behar da. Vatikanoko II. Kontzilioak bien arteko kideatasuna baieztatu du.

Erlirio guztiek kontu handiko arazoa dute, beren jatorrizko edukina ondorengoei zintzoki eskualdatzearena, nahiz liburutan jarritik nahiz ahoz-ahoko irakaspenaren bidez aurrenik, eta gero \*idazteunetan finkaturik.

Berezikiago, ahoz-ahokoari deritza Tradizioa, idazteunari kontrajarriz edo. Orduan bien arteko harremanaren eta bakoitzaren arau-balioaren arazoa sortzen da bizi-biziki.

Islamismoan, \*suniten eta \*xiiten arteko bananketa oinarri nagusienetakoa hortxe dago, hain zuzen ere: haiek \*Sunna edo \*Hadith (=tradizioa) Koran-aren beraren mailan jartzten dute; xiitek, berriz, \*Korana bakarrik onartzen dute arauemaitzat.

Ik. Apostolua; Protestantismoa; Eskritura soila; Biblia.

Paulo Agirrebaltzategi

## Tradizionalismoa

1. Hertsiki, erlijiozko ezagutza guztia \*tradizioan oinarritzen dela eta giza adimen banakoak ez duela bere adimen soilaz hori lortzeko ahalmenik dioten teoria da. Teologia naturalaren edo \*teodizearen ezina baieztatzen du bereziki.

Teoria horren arabera, Jainkoak hasieran gizadiari egindako errebelazioan --lehen alditako goi-agerkundera--, etengabeko tradizioz ondorengoenganatuan, dago edozein ezagutza metafisikoren eta erlijiozkoren oinarria.

Filosofia honen sortzaile eta lekukorik nagusienak L.G.A. de Bonald (1754-1840), F.R. de Lamennais (1782-1854), L.E.M. Bautain (1796-1867) eta A. Bonnetty (1798-1897) izan ziren.

Vatikanoko I. Kontzilioak gaitzetsi zuen tradizionalismoa, erlijiozko ezagutza berez lortzeko arrazoimenaren ahalmena ukatzen zuen aldetik bereziki.

2. Zabalkiago harturik, eritizitan eta jokabidetan kontserbakorrak direnei deritze tradizionalistak, eta tradizionalismoa, horien jarrera litzateke.

Ik. Jainkoaren izatearen egiaztarabideak; Lehen alditako goi-agerkundera; Progresismoa; Teologia naturala.

## Traduzianismoa

Jaioberriak, gorputzaren sortze berean, arima izpirituala ere gurasoengandik hartzen duela irakasten duen teoria. Elizan, bereziki mendebaldean, oso zabalduta egon zen irakatsi hori, \*kreazionismoa gailendu zen arte. Horrela bakarrik ueste bait zuten orduko pentsatzaileek jatorriko bekatuaren umeetaratzea argi zitekeela.

Ik. Jatorrizko bekatua; Gorputza/Arima.

## Traganarru

Euskal mitologiako jeinua, itsas \*ekaitzaren pertsonifikazioa eta horri eragiten diona.

Ik. Izadi-gurtza Euskal Herrian.

## Transkulturazioa

1. Sin.: Kultur trukea. Fernando Ortiz antropologoak finkaturiko hitza, bi kulturen arteko elkarrenergina adierazteko. Elkarrengiko eragin horretatik hirugarren kultur sistemen bat sortuko da.

2. Transkulturazioa deritza, baita, kulturaz-gaindiko eta ez-kulturazko elementuak kultura batetatik bestetara igarotzea ere, hemen berriro ere kulturaztatzeke.

Ik. Akulturazioa; Kulturaztapena; Misio-laneko moldaera.

## Traszendentea

Ik. Haraindikoa.

## Traszendentsia

1. Sin.: Haraindia. Kontzeptu filosofikoa, mundutik eta historia mundutarretik \*haraindikoa adierazten duena.

2. Sin.: Haraindikotasuna. Era berean haraindiko "munduaren" izaera bera edo haraindikotasuna adierazten du, honaindikoaren izaeraren edo imanentziaren kontrakoa. Jainkoaren eta jainkozkoren dohaina da traszendentsia; "erabat bestelakoa" ere esaten da Jainkoaren edo \*Misterioaren izaera hori adierazteke.

Ik. Jainko bila; Bestelakoa; Mundua; Krea-zioa; Teismoa; Deismoa.

## Triangelua

Hirukoaren sinboloa da, \*kristautasunean bereziki Hirutasun txit santuaren sinboloa, hiru aldeak berdinak ditunean.